


Euskal AEko industria-prezioak bere horretan mantendu dira 2024ko maiatzean, aurreko hilaren aldean

2023ko maiatzarekin alderatuta, industriako prezioek % 4,6 egin dute behera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak konstante mantendu dira 2024ko maiatzean, aurreko hilaren aldean. Maiatzeko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industri prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 4,6 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2024ko maiatzean, *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 5,8), *Industria kimikoa eta Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa* (% 0,2) sektoreek izan dituztela, aurreko hilaren aldean, jaitsierarik handienak prezioetan. Aitzitik, hileko arteko prezioetan igoera izan duten sektoreak hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,0) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 1,0).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, 2024ko apirilarekin alderatuta, energiaren prezioak % 2,7 jaitsi dira; *Kontsumo-ondasunenak*, berriz, egonkor mantendu dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,5 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* % 0,1 jaitsi direlako. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,6 igo dira eta *Ekipoko ondasunenak* % 0,5.

Urte artean, 2024ko maiatza 2023ko maiatzarekin alderatuta, prezioen jaitsierarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 37,6) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 6,7) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko terminoetan igoerarik handiena izan duten prezioak *Erauzketa industriak* (% 12,3) eta *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 3,3) adarretan izan dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	122,8	0,0	-4,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	138,8	0,1	12,3
Manufaktura-industria	129,7	-0,4	0,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	132,7	-0,1	0,9
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	113,6	0,1	-0,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	140,8	0,0	-6,7
Kokeak eta petrolioaren fintzea	133,9	-5,8	3,3
Industria kimikoa	146,3	-0,2	-2,3
Botiken fabrikazioa	131,7	-0,1	1,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,7	0,0	-1,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,2	1,0	1,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,0	0,3	1,1
Material eta ekipoen fabrikazioa	119,8	-0,2	2,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,7	0,0	1,2
Garraiorako materialen fabrikazioa	116,0	0,8	2,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	122,2	0,1	1,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	81,0	3,0	-37,6
Ura	135,9	-0,3	2,7
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	130,5	0,0	1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	121,7	0,5	3,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	132,0	-0,1	1,1
Ekipo-ondasunak	120,5	0,5	1,6
Bitarteko ondasunak	134,9	0,6	-0,3
Energia	102,6	-2,7	-22,0

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Ekainaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (% 22,0) eta *Bitarteko ondasunetan* (% 0,3). *Kontsumo-ondasunen* prezioak, aldiz, % 1,4 igo dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 3,0 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak % 1,1 igo direlako. Azkenik, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 1,6 igo dira.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **92,31ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio-oharra:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62